

Maite Gurrutxaga, bere ibilbidea ilustratzen





10-16

AURKIBIDEA

Iritzia Ane Urkola **3**

Wattaria Imanol Landa Medrano **8-9**

Asteko Gaia Maite Gurrutxaga,
proiektutik proiektura **10-16**

Zientziaren Talaia

Josu Lopez Gazpio **18-19**

Iritzia Koldo Aldabe **20**

Iritzia Rocio Fraga **21**

Bertsoa Unai Mendizabal 'Mendi' **22**

Begirada Grafikoa Beñat Iraola **23**

Agenda **24-25**

Erreportajea 'Fadoak entzuten
zituen gizona' **26-29**



26-29



21



Azaleko irudia
Iñigo Terradillos

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 82€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabiltzen eta
lana egiten

Bikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa eta Zizurkil.



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**



ANE URKOLA
AGIRREZABALA
KAZETARIA

Negazionista ote naiz?

Neure buruari hitza eman nion ez nuela COVID-19ari buruzko iritzi artikulurik idatziko, hedabideengandik etengabe ari garelako informazioa jasotzen. Azkenaldian, ordea, kezkatuta nauka jendartean sortzen ari den fenomeno batek: negazionisten eta botereak ezarritako arauak guztiz defendatzen dituztenen arteko dikotomia.

Azken egunetan, horri buruzko eztabaida ugari ikusi ditut sare sozialetan, eta ez zaizkit erabat zintzoak iruditu. Sentsazioa daukat sistema bera ari dela dikotomia hori hauspotzen, eta ondorioz, jendartea polarizatzen: negazionista ala botereak esandakoari men egiten diona. Gurekin zaude edo beraiekin. Bat edo beste. Ez dago erdibiderik.

Eta diot sistema bera ari dela hori hauspotzen, sistemari berari ez zaiolako komeni pandemia honen ondorioak areagotu dituen egiturazko gabeziei kritikotasunez heltzea. Sistema bera ari da etengabe norbanakoon bizkar gainean jartzen pasatzen ari denaren errua. Arduragabeak. Ez jakinak. Berekoia. Denetik esan digute herritarroi. Argi dago instituzioek eta hari lotutako industria mediatikoak mekanismo hori erabili dutela beren ardura estaltzeko.

Ez dut nik zalantzan jarriko pandemia bat bizitzen ari garen edo ez. Onartu behar dut ni ez naizela zientzialaria, eta ez dakidala pandemia bati aurre egiteko neurririk egokienak zein diren edota maskararen eraginkortasuna zein den. Kontziente naiz egoera larria dela, baina uste dut erakundeek etengabe ume bezala tratatu gaituztela, eta heldutasuna da zor digutena. Egoera ulertzeko baliabideak ematea da beren egitekoa, informazio zehatza eta egiazkoa transmitituz.

Izan ere, iruditzen zait kontatzen ari zaizkigutena baino ertz gehiago dituela arazoak. Felix Zubia medikuak aste honetan bertan esan du ospitaleetako ZIUek gainezka egiteko arriskua dutela, eta benetan larria iruditzen zait hori. Baina zilegi da kutsatze guztien erantzukizun guztia norbanakoen gain uztea? Non dago erakundeen kudeaketaren ardura? Zein da

Sentsazioa daukat sistema bera ari dela dikotomia hori hauspotzen, eta ondorioz, jendartea polarizatzen: negazionista ala botereak esandakoari men egiten diona

baliabide faltaren erantzulea? Zer gertatzen da zaharren egoitzetan? Eta eskoletan? Lantegietan? Aste honetan bertan, hezkuntza komunitateko milaka langilek hezkuntzarako itzulera neurtua eta adostua eskatu dute. Hori ere gure ardura ote da?

Ardura norbanakoen gainean jarri ordez, kolektiboki pentsatu eta elkar zaintzea dagokigu. Ez gaitzabela otzan bihurtu, eta izan gaitezen erakundeetatik esaten digutena zalantzan jarri eta kritikotasunez lantzeko gai, horrek ez gaitu eta negazionista bihurtzen. Hori jendarte osasuntsu baten erakusle izango litzateke, eta ez dezagun ahaztu: osasuntsu egotea ez da gaixotasun falta bakarrik.

«Badaude gorune batzuk, baina ni ibilbide osoarekin geratuko nintzateke»

IKER KARRERA ETA UNAI UGARTEMENDIA

‘BIDEA IPAR’ LIBURUAREN EGILEAK

Bi proposamen iritsi zitzaizkion Iker Karrerari bere kirol ibilbidea liburu bihurtzeko, gerora bat egin dutenak. Kirol datuak baino mendi lasterkariaren bizipenak eta gogoetak bildu dituzte bertan.

Imanol García Landa

Iker Karreraren (Amezketan, 1974) kirol ibilbidea jaso dute *Bidea ipar* liburuan, protagonistak berak eta Unai Ugartemendia (Andoain, 1975) kazetariak osatuta. Liburuaren jendaurreko aurkezpena Tolosako Leidor aretoan egingo dute, irailaren 30ean, 20:00etan.

Proiektu guztiek dute hasiera bat. Nola izan zen liburua?

Unai Ugartemendia. Ikerrek dortsala jarri zuen azken egunaren hurrengo egunean. Chamonixen, *Berriarako* elkarrizketa egin nion. Arratsalde ederra pasa genuen han, eta bi orri izan behar zuenak sei edo zazpi idazteko emango zidan, eta konturatu nintzen gauza asko bidean geratu zirela. Furgonetan handik nentorrela, konturatu nintzen Ikerrekin beti izan dudana sentazioaz, elkarrizketak egin ditudanean oso luze joan direla, eta erdia baino gehiago atera gabe gertatzen zela. Eta hor etorri zitzaidan liburuaren lehenengo zantzua, baina ez nion erreparatu askorik jarri. 2019ko martxoan, Chamonixen egindako elkarrizketa entzuten ari nintzela berriro, pentsatu nuen liburua egitearena proposatuko niola, eta arratsalde horretan deitu nion. Justu, *Desnivele* editorialekoak deitu ziotela esan zidan, liburu bat erdaraz idazteko. Nik baldintza bakarra jarri nion, idazteko euskaraz bakarrik idatziko nuela. Gero, hilabetera edo deitu zidan Ikerrek eta hortik abiatu ginen.

Iker Karrera. Bazen denbora *Desnivele*tik esan zidatela

liburua idazteko. Lehiaketako ibilbidea bukatuta, ikusten nuen garaia izan zitekeela. *Desnivele*ko Darioren [Rodriguez] bitartez erdaraz izango zen, eta Unairekin [Ugartemendia] euskaraz, eta hasieran zalantza batzuk izan banituen ere, gero eta buelta gehiago eman, konfirmatu zidan nik liburu bat idatzi behar banuen, lehenengoa behintzat euskaraz izan behar zuela. Azken urteotan gehiena erdaraz egin dugu, eta uste dut euskarari zor niola zerbait; gainera, ikusten nuen errazago adieraziko nituela gauzak. Unairekin ondo konpontzen naizenez, nahiko erraza izan zen erabakia hartzea.

Zer suposatzen du zuretzat, Iker, zuri buruzko liburu bat argitaratzea?

I.K. Nire kirol ibilbideko bizipen mordo bat daude jasota, eta horrek badu balio bat, memoria denborarekin higatzen joaten delako. Liburua egiteko ariketa horretan oharatu naiz zenbait datu eta gauza galtzen joaten direla, eta liburuak ere ematen du horiek gordeta geratzeko aukera. Datuak baino bizipenak daude, eta kirol ikuspegia bezainbat jasota dago alde humanoa. Miseriak eta bestelakoak barruan gordeta daude, eta hori ere bagara. Liburuan nire izatearen puska bat jasota geratuko da.

Zuk, Unai, garbi ikusten zenuen Ikerren kirol ibilbideak merezi zuela liburu bat egitea.

U.U. Bai, eta nik, gainera, bere ibilbide guztia jarraitu dut. Gogoan dut aurreneko gertutik ikusi nuenean Ehunmilak-eko lehen edizioan izan zela; goizeko ordu



HITZAURREA KILIAN JORNET



Ezkerrean, Iker Karrera eta Unai Ugartemendia. Eskuinean, liburuaren azala. **I.G.L. / ATARIA**

batak izango ziren, Trianguloa plazan nengoen, eta bere irudia Herniotik nola jaitsi zen euri artean. Eta gero, ordutik aurrera egin duen guztia. Nik bere ibilbide guztia ezagutzen nuen; hemen, Tolosan, ikusten genuen egunero, baina kontuan izan behar da une batean munduko bigarren onena izan zela, Kilian Jorneten ondoren. Liburua bera ez da mendi lasterketetako *friki* batentzako: ez ditugu denbora asko jarri, ez dugu entrenamendu bat ere idatzi... Gehiago izan da bere bizipenak, bere gogoetak... Garaipen ugari ditu, baina bere miseriak ere pasa ditu. Lehenengo elkarrizketan azaldu nion Ikerri gauza bat bakarrik esango niola, biluzi egin behar zela. Uste dut komunikabideetan jorratzen ez diren gauza asko jorratu egin behar direla. Hor ikusi nuen kontatu nahi zuela, eta nik entzun nahi nuela, eta oso erraza izan da niretzat.

Nola izan da liburua idaztearen prozesua bera?

I.K. Lanaren oinarria Unaik egin duen prestaketa edo gidoia izan da, eta gero elkarrizketa ordu mordo bat igaro ditugu. Hor askatzen joan gara, gauzak botatz, eta gero hori guztia jaso du, idazten joan da, eta gero zuzentzen joan gara.

U.U. Idazteko lan horretan gidaria Ramon Olasagasti izan da. Nik ez nuen behin ere liburu bat idatzi. Ni ez naiz idazlea, ez naiz behin ere horrela sentitu, baina kazetari nabilen horretatik ikusten nuen kazetari askok esajeraziorako duten joera. Eta Ikerrek zerbait ez badu egin bere ibilbidean, esajeratzea izan da. Hor egon nintzen nola bideratu, nire ikuspuntua bakarrik sartu edo... Ramonekin izandako solasaldi batean konturatu nintzen Ikerrek hori baino errespetu gehiago merezi zuela, eta ikusi genuen egokiena galderaerantzunekin egindako liburu bat osatzea. Koma bat ere ez dugu esajeratu, eta gutxiagotik ere ez dugu jarri: kontatu dugu Ikerrek kontatu duen bezala.

Pasarte ugari berriz ere biziko zenituen, Iker. Pertzepzioren bat aldatu zaizu, edo, esaterako, uste zenuen daturen bat gero beste bat izatea?

I.K. Denborak eta horrelako kontuetan baino, esango nuke bizipenetan, lasterketa edo marka bakoitzak utzitako hondar horren inguruan egon dela buelta ematea edo gauza batzuetaz ohartzea. Momentu batean izandako erreakzioaz, edo egindako zerbaitez... Aspektu horietan zer pentsatua ekarri dit ariketa ho-

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa

ATARIA-ko bulegotik (San Esteban, 20. Tolosa). Iragarki guztiak **iragarkilaburrak.eus**-en.

nek. Datuena ez da gehien interesatzen zaidan dimentsioa, hori gutxienekoa da, eta datu horien bila doana, liburu honekin ez du topatuko.

Beraz, batez ere zure bizipen eta hausnarketak topatuko ditu irakurleak.

I.K. Azkenean kontakizun bat da, kapituluka, lasterketak eta markak jasoz. Ibilbide gehiena behintzat egituratuta dago, eta kapitulu bakoitzak bere edukia du. Kirolaria azaltzen da baina atzetik dagoen giza aspektu hori uste dut azaleratu dela. Gure miseriak hor ikusten dira, eta baita horrelako ibilbide bat egin ahal izateko, kirolari batek izan behar duen esfortzu, diziplina eta beste hainbat gauza ere bai.

Liburuaren izena, 'Bidea ipar', nondik sortu da?

U.U. Ikerrek azaldu zuen ze kutsu eman nahi zion liburuari, eta bota zituen hiru edo lau esaldi, eta Ramonekin ere kontsultatu genuen. Ikusi genuen motza izan behar zuela, indarra zuena, eta gainera bere ibilbideak markatzen du liburua. Ikerrek dioen moduan, datu gutxi daude, eta gehienbat bere gogoetak dira. Hainbat lasterka irabazi ditu, baina bere porrot pertsonalak izan ditu, nahiz eta lasterketa bat irabazi, eta horiek ondo azaleratu ditu. Eta uste dut jendeari horrek piztuko diola atentzioa.

Eta azaleko argazkiaren aukeraketa? Lehen kolpean ikusten dena da ez zaudela bakarrik.

I.K. Azal horrek bere istorioa du, eta horri buruz asko hitz egin daiteke. Nik uste dut ondo aukeratuta dagoela, eta ez dagoela ezer soberan. Unaik argazki sorta bat erakutsi zidan azalerako, eta ez nintzen oso gus-

tura sentitu. Argazki galeria begiratzen hasi nintzen eta argazkia ikusterakoan esan nuen: «Hau da», argazkia bera, eta baita argazkiak duen istorioa biribila delako. Lasterketa bateko helmugara iristen garen momentua da, ni bigarren izan nintzen eta argazkian dagoena izan zen irabazlea. Eta hori askotan gertatu zait, eta lasterketa handienetan kasik bigarren izan naiz. Irabazi zidana gaztea zen, eta lehiatu naizen azkeneko lasterketa izan zen, Somiedokoa. Besarkada bat da, eta nolabait agur esateko modu bat da korrikalari guztiei. Ibilbide honetan bakarrik gutxitan egon naiz. Gehienetan inguru batek lagunduta egon naiz, eta inguru horretan korrikalariak izan dira parte garrantzitsuena kasik. Korrikalari baten ibilbidean duzun arerio eta lagunik handiena beste korrikalari bat da.

Kilian Jornetek egindako hitzaurrea du liburuak. Horrek ere bere esanahia izango du.

I.K. Unairi zor zaion zerbait da. Kilian laguna dut, nahiz eta berarekin maiztasunezko harreman bat izatea ezinezkoa den. Berarekin egon naizen gutxietan, gauza asko elkar ulertzen ditugu, eta gauza asko esan gabe, ulertzen gara. Nire liburuan Kilianen hitzaurre bat izatea ohore bat da, eta kirol honetan ezin da gehiago eskatu.

U.U. Uste dut pandemiak guri ekarri zigun gauza oneetakoa horixe izan zela. Hiru astetan etxean harrapatu genuen, eta gogoan dut deitu nioenean segituan baietz esan zidala. Orain liburuaren aurkezpenetarako bere sorpresatxo bat izatea espero dugu.

Noiz jarriko da salgai liburua?

ATARIAN jarrita Goleerri
eta Urola Kostako
Hitzza egunkarietan doan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€
Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€
Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu.



Iker Karrera, eskuinean, 2014ko UTMBko helmugan, Tofo Castanyerrekin. **QUIM FARRERO**

U.U. Irailaren 30ean, aurkezpenaren egunean bertan. Aurkezpenean ale batzuk izango ditugu salgai.

I.K. Aurkezpena aipatuta, esan behar da gaur egun bizi dugun egoera honek baldintzatzen digula guztiz. Neurri batzuk hartu behar dira, gune seguru bat izan nahi genuen, eta horregatik pentsatu genuen Leidor izatea. Lehenetsi nahi dugu segurtasuna eta gonbidapen bitartez joan ahal izango da jendea aurkezpenera. Zerrenda ere prestatuta dugu gonbidapen horietarako. Horren ondorioz aztertzen ari gara sareak baliatzea, nahi duenak modu irekian zuzenean jarraitu ahal izateko ekitaldia.

Ze nabarmenduko zenuke, Iker, zure ibilbidetik?

I.K. Egon dira mugarri batzuk, lasterketa eta marka batzuk, eta liburuan bertan aipatzen dira azpimar-tuta, baina orokorrean, denbora pasatu eta gero, ni ibilbide osoarekin geratuko nintzateke. Badaude gorune batzuk, baina perspektiba pixka bat hartuta, ibilbide guztiak balio izan zuen, merezi izan zuen, eta badu koherentzia bat. Liburuaren izenburuak ere hor hartzen du indarra.

Eta zure ikuspuntutik, Unai, zerbait nabarmenduko zenuke?

U.U. Ni pixka bat bustiko naiz. Egia da denek gogoan

dutela 2011ko Mont Blancoko Ultra Traila (UTMB), bigarren egin zueneko, ia inork ez zuelako ezagutzen, eta hara azaldu eta Kilianen atzetik bigarren egin zuen. Inoiz debutari batek egin duen denborarik onena egin zuen, eta gaur egun ere oraindik hor dagoen marka da. Nik, baina, 2014koa nabarmenduko nuke. 2013an lesionatu egin zen, eta hilabete asko geldirik egon ondoren, berriz ere 2014an Chamonixera joan, eta berriro ere bigarren egitea... Jendeak bazekien zerbait bazuela, baina bi aldiz joan eta bi aldiz bigarren egitea... Gainera asko sufrituta lortu zuen, eta kontakizuna izugarria da.

Mendi lasterketak utzita, nola ari zara bizitzen orain kirol hau? Joaten zara korrika egitera?

I.K. Korrika egiten jarraitzen dut. Orain ez naiz entrenatzera joaten, orain korrika egitera joaten naiz, plazerez joaten naiz, osasunez nire gorputzak eta nire buruak behar duelako korrika egitea eta mendira joatea. Gero, auskalo itzuliko ote naizen. Ez dut baztertzen, baina ohartu naiz denbora bat behar nuela, geldialdi bat behar nuela. Urriaren hasieran zerbait egingo dut, baina Salomon etxeak sare sozialetara begira antolatu duen zerbait da, eta ez du zerikusirik lehia edo lasterketa batekin.



**IMANOL LANDA
MEDRANO**
CIDETEC
FUNDAZIOKO
IKERTZAILEA

Eskolak (III)

Iritsi zaigu iraila, udari agur esan eta eskoletara itzultzeko garaia. Aurtengo itzulera berezia izango dela dirudi, baina niri aukera aparta eman dit hilabete honetako testuaren sarreratxo idazteko. Beraz, Sagardui eta Bildarratzen onespina jasota, has daitezela Wattariaren eskolak!

Aurreko bi eskoletan honako hau ikasi genuen: lehenik eta behin, bateria bakoitzean bi elektrodo dau dela eta bata oxidatzean bestea erreduzitzen dela. Hau gertatzean elektroiak askatu egiten dira eta gailu elektronikoek elektro horiek erabiltzen dituzte lana egin ahal izateko. Bestalde, kapazitatea eta boltajea deskribatu genituen: lehenak bateriaren iraupena adierazten du; eta, bigarrenak, indarra. Bi parametro hauek biderkatuta energia lortzen da. Esate baterako, auto elektrikoak energia handia behar du eta, ondorioz, boltaje eta kapazitate handiak behar ditu.

Litio-ioi bateria solteek (zeldek), gehien jota, 3.7 V-ko boltajea ematen dute. Gure telefonoa


elikatzeke nahikoa den arren, oso urrun dago -betiko adibidera itzuliz-, auto elektriko batek behar duen boltajetik. Izan ere, 300 V-tik gora behar dira horrelako kotxe bat mugitzeko. Kapazitateari dagokionez, berdina gertatzen da: zelda batek eman dezakeen kapazitatea ez da nahikoa auto baterako. Nola konpondu arazo hau? Zeldak elkarren artean konektatuta.

Zeldak paraleloan konektatuta, hots, polo positiboak elkarren artean eta polo negatiboak elkarren artean jarrita, bateriaren kapazitatea gehitzen da.

Esate baterako, mugikorreko bi bateria elkarren artean paraleloan konektatu eta telefonoa horien bidez elikatuz gero, iraupen bikoitza izango du. Eta zer gertatzen da positiboa negatiboarekin eta negatiboa positiboarekin (seriean) konektatuz gero? Boltajea batuko dela: 3.5 V-eko bi zeldek seriean 7 V emango dituzte, iraupenean eraginik izan gabe.

Seriean edo paraleloan: beharrezkoa al da aukeratzea? Ez! Ohi-

Zelda batek eman dezakeen kapazitatea ez da nahikoa auto baterako. Nola konpondu arazo hau? Zeldak elkarren artean konektatuta



koena zelda multzo bat osatu eta paraleloan konektatzea da (modulua deitzen zaio talde honi). Ondoren, modulu ezberdinak seriean konektatuta boltajea handitzen da. Konexio hauen diseinuaren ardurdunak ingeniari elektrikoak izan ohi dira. Moduluak osatzerakoan, oso garrantzitsua da zeldak modu konpaktu batean biltzea (ingeniari mekanikoen lana). Bestalde, energia handitzen dugun heinean, arriskuak ere handitzen dira: hori dela eta, ingeniari elektronikoek segurtasun sistemak garatzen dituzte temperatura, boltajea edota beste parametroren batek ezohiko balioak izanez gero, honen berri izan eta segurtasun protokoloa aktibatze-

Europar Batasuna zelden garapena hona ekartzeko inbertsio handia egiten ari den arren, egungo zelda fabrikatzaile gehienak asiarrak dira

ko. Segurtasun protokolo hauek txartel elektronikoetan *sartzen* dira, eta txartel hauek sentsore ezberdinak izaten dituzte.

Beharbada ohartuko zinen, irakurle, ingeniari hitza

behin baino gehiagotan aipatu dudara. Izan ere, Europar Batasuna zelden garapena hona ekartzeko inbertsio handia egiten ari den arren, egungo zelda fabrikatzaile gehienak asiarrak dira. Mendebaldeko enpresek gehienetan zelda hauek erosi eta ingeniari lanaren bidez euren arteko konexioak optimizatzen dituzte. Hori da, hain zuzen, iraila honetan bertan Tolosan abian jarri den Mubil zentroaren ikerketa gaia.

«400 lanen artetik bigarren gelditzeak, poz handia eman dit»

MAITE GURRUTXAGA
ILUSTRATZAILEA

Maite Gurrutxaga oporretatik bueltan harrapatu zuen TOLOSALDEKO ATARIA-k. Uztaila emankorra izan zen amezketarrarentzat. Alde batetik, 'Hans eta igela' liburua argitaratu zen bere ilustrazioekin, eta bestetik, Compostela Sarien XIII. Edizioko finalista izan zen 'Bola' lanarekin. Orain, lan pertsonalei ekiteko gogoz da ilustratzailea.

Eneritz Maiz Etxarri

Maite Gurrutxaga ilustratzaile eta sortzaileak «pozik» egoteko arrazoiak ditu. Mundu mailako Compostela Sarien lehiaketan finalista izan da. 400 lanetik gora aurkeztu dira, eta irabazlea Pietro Gottuso italiarra izan da *Desde 1880* album ilustratuarekin, eta atzetik, amezketarraren *Bola* albuma izan da aipamen berezia jaso duena.

Mundu mailako sarietan podiuma lortu duzu. Gustura?

Pozik. Banekien aurtan ere lan asko aurkeztuko zirela lehiaketara, eta zaila izango zela, baina hala eta guztiz ere bidaltzea erabaki nuen. Sorpresa izan da finalista izatearena.

Noiz jakin zenuen finalista izan zinela?

Ez espero izateko beste arrazoietako bat hori izan zen. Ia egunean bertan esan zidaten. Prentsasurekoa

egin behar zuten egunean. Aurretik zain zaude zerbait esango dizuten edo, eta ezer ez jakite horretan, neure buruari esana nion, listo. Eta ia prentsasurekoa egitear zeudela deitu zidaten esanez finalista izan nintzela, eta asko gustatu zitzaizela nire lana. Telefonoz deitu zidaten, eta poz handia hartu nuen. Epai-mahaiarekin hitz egiteko aukera izan nuen, eta oso pozik nago.

Zer esan nahi du zuretzat sari honen?

Lan pertsonal bat da, neronek eginiko lan bat hasieratik bukaeraraino, eta baloratu edo aitortu ikusi dut. Horrek poz handia ematen dit, eta argitaratua ikusteko edo izateko esperantza hori ematen dit. Zuk lana egiten duzunean zerorren-tzako ari zara, eta zuretzat egiten duzu, eta ez dakizu oso ondo egiten ari zarena ulertzen den edo ez, edo iritsiko den jendearengana. Ulertzen dela, eta argitaragarria dela ikus-teak poz handia ematen dit. Ilusioa pizten dit.

'Bola' albuma aurkeztu duzu lehiaketara. Espresuki eginiko lan bat izan da?

Ez. Pandemia garaiko lan bat da. Aspalditik bueltaka nerabilkien lan bat da. Ideia bat bueltaka nuen buruan. Pandemia garaian, etxean egon behar, eta ez nuenez lan asko, horri eltzea erabaki nuen. Gaiak, era berean, egoerarekin konektatzera eramanez ninduen. Ezinegon edo antsietatearen gaia

bada, beldurraren aurreko erreakzio bat. Garairako oso aproposa. Orduan egin nuen, bukatu nuen, eta ea zein lehiaketa zeuden begiratu nuen. Hauxe ikusi nuen, eta bidali egin nuen.

Zein lan mota da 'Bola'?

Album ilustratu bat da, eta mutua da. Hitzik gabea. Neska bati nola bola batek jarraitzen dion etengabe kontatzen da. Ez dio uzten lasai, ahalik eta, neskak bola horri zerbait egitea erabakitzen duen arte, molestatzeari uzteko.

Mundu mailako saria da.

Bi album mutu izan dira sarituak. Ez da ohikoa. 400 lanen artetik bigarren gelditzeak poz handia eman dit. Lanaren kalitatea ikusten da. Egia da gustuen arabera ere badela, baina ilusio berezia egin zidan horrek.

Indarra emango du honelako sari batek lan berriak sortzen jarraitzeko, ezta?

Bai. Norberaren lanei irteera emateko izan daiteke, eta agian, beste ideien bat etortzen zaidanean ere lan horri heltzeko. Honek horrelako erantzuna izan badu, bada jarraituko dut bide horretatik eta ea zer gertatzen den.

Bestetik, Inazio Mujika Iraolaren 'Hans eta igela' liburua argitaratu da uztailean eta liburuko ilustrazioak zureak dira. Nolako lana izan da kasu honetan?

Urte hasieran jaso nuen lana izan zen. Testuarekin hasieratik konektatu nuen. Lan mota ezberdina da. Testu bat iristen zaizu, eta Erein argitaletxeak argitaratu du. Hor jada badago zeri heldu. Testua asko gustatu zitzaidan. Testu batzuk irakurri eta jada segituan jakiten duzu nola joan behar





duen liburuak. Jende asko ikusten nuen, eta horregatik ikusten nuen orri osoa hartuko zuen irudia izan behar zuela. Horrela gertatu zitzaidan, eta erraza izan zen. Segituan murgildu nintzen istorioan. Orain arte akuarelarekin egin dut lan asko eta orain, gouache probatzeko gogoia nuen. Gouachekin egin dut lana, eta asko gustatu zait. *Bola* ere horrela egin dut.

Erraza suertatu zaizu, beraz, lan hori?

Gustagarria. Gustura egin dudana izan da. Beste asko ere zailak eginagatik, prozesua bera beti da interesgarria. Kasu honetan, teknika aldaketak ere gogoia piztu dit.

Aurrera begira zer duzu esku artean?

«Neronen lan pertsonal bati heltzeko gogoarekin nago. Ideia batzuk baditut bueltaka»

Urtero Galtzagorrik *Marrazioak* ikastaroa antolatzen du, eta ilustratzaileentzako ematen den astebeteko ikastaroa da. Juan Kruz Igerabide eta biok emango dugu aurren, eta beste tailerren bat edo beste ere baditut. Ikusi beharko da egiteko aukerarik dugun edo ez.

Bestetik, neronen lan pertsonal bati heltzeko gogoarekin nago. Ideia batzuk baditut bueltaka. Ereingo liburu bat argitaratu da, baina bigarrenengo bat ere argitaratuko da aurren Mujika Iraolaren testuekin, eta jarraipena izango duen bilduma bat da, eta hirugarrenari ere laster helduko diodala pentsatzen dut.

Emakumeak komikigintzan, Euskal Herrian zein European

Maite Gurrutxaga ilustratzaile amezketarra Bruselako Fete de la BD jaialdiko mahai-inguru batean aritu da nazioarteko lau artistarekin. Etxepare Euskal Institutua jardunaldien antolakuntzaren parte izan da.

Aitor Arroyo Askarai

Maite Gurrutxagak denbora darama haur, gazte eta helduentzako ilustrazioan. Bere hainbat lanek sariak eta aipamen bereziak eskuratu izanaz gain, Gurrutxagak badu

ilustrazioaz gaindiko egitasmorik ere, besteak beste, hitzaldi eta mahai-inguruetan parte hartu izan du.

Azkena, joan den astean izan zen, hain zuzen, Bruselako Fete de la BD jaialdian.

Jaialdi horretan komikiarekin lotura duten tailerrak, hitzaldiak, aurkezpenak, mahai-inguruak eta erakusketak egiten dituzte. Urtero 100.000tik gora bisitari eta 250 egile baino gehiago elkartzen ditu belgikar hiriburuan; baina aurretik, osasun neurriak tarteko, artista belgikarrak bakarrik izango dira ber-

tan. Nazioarteko artista gonbidatuek *online* bidez eskainiko dituzte euren hitzaldi, tailer eta mahai-inguruak.

Hori horrela, mahai-inguru birtual batean hartu zuen parte sortzaile amezketarrak. Hainbat herrialdeko bost artista elkartu ziren, guztira, Zoom

aplikazioa erabiliz: Kaisa Leka finlandiarra, Stepanka Jislova txekiarra, Maryse Dubuc quebecarra, Rachel Saleb israeldarra eta Gurrutxaga bera.

«Gai interesgarriak lantzen ditugu eta bakoitzak bere herrialdeko egoeraren inguruan hitz egiteko aukera izan du. Aberasgarriena besteen kontakizunak entzutea izan da», horrela hitz egin du ilustratzaile euskaldunak jardunaldiaren inguruan. *Emakumeak komikigintzan: ikuspuntu europar bat* (Women in Comics: A European



perspective) izenpean bildu dira eta askotariko gaiak jorratu dituzte, horien artean, komikigintzaren esparruan emakumeek duten parte-hartzea, sorkuntza prozesuaren nolakotasunak eta zein diren gainditu behar izan dituzten erronkak.

Ilustratzaileen lana etxean egiten dela eta, askotan bakartia izaten dela aipatu du Gurrutxagak. Hori dela eta, esparru bereko kideekin komunikatzea eta esperientzia ezagutzea beti «interesgarria» omen da. Mahai-inguruan beste herrialdeetako egoera ezagutze-ko aukera eduki dutela ere nabarmendu du artista euskaldunak, ilustrazioaren esparruaz gain, COVID-19ak eduki duen eraginaz eta egoera horretan lan egiteaz ere aritu direla zehaztu du.

Besteak beste, norberaren bizipenak eta inspirazio iturriak elkarbanatu dituzte; baita ideiak partekatu eta hainbat ondorio atera ere. Amezketako ilustratzaileak esan duenez, guztiek azaldu dute komikien bitartez barneko unibertsoa ateratzeko beharra, eta komikietan aurki daitekeen lan pertsonal eta autobiografikoen oparotasuna artistaren behar horri zor zaiolakoan dago.

Emakumeen komikigintza ezagutarazteari buruz ere aritu dira. Gurrutxagak «oso argi» du gaiarekiko ikuspuntua: «Emakumeok biztanleriaren erdia gara eta badugu zer esanik. Ezinbestekoa da esfera publikoan gure iritzia egotea; bestela, ikuspuntuaren erdia faltako litzateke».

Kanpotik barrura

Komiki egile izateaz gain, kontsumitzailea ere bada Maite Gurrutxaga. Komiki europarra asko gustatzen zaiola kontatu du, eta irakurri dituen lan gehienek jatorri hori omen dute. Komikiei buruz duen ezagutza beste egileen obrak irakurriz eskuratu du artista amezketarrak. Bestelako komikiak atsegin dituela ere nabarmendu du, baina European autore interesgarri asko daudela eta sormen handia dagoela uste du.

Euskal Herriko egoeraren inguruan

«Ezinbestekoa da esfera publikoan gure iritzia egotea; bestela, ikuspuntuaren erdia faltako litzateke»



ere aritu da. Gurrutxagaren ustez «kalitatezko lanak» argitaratzen dira hemen ere, baina irakurle heldua oraindik «ez da gerturatu» komikien mundura.

Eusko Jaurlaritzak urtero komikiak argitaratzeko bekak aurkezten dituela era aipatu du artistak. Zehazki, lau diru laguntza ematen ditu komikigintzarako eta, beste hiru, ilustraziorako. Gainera, bi modalitateetan beka bana 30 urtez azpikoentzat zuzentzen da.

Beka horien bitartez, azken urteetan «hainbat proiektu interesgarri»



Maite Gurrutxaga euskal ilustratzaileen ordezkaria izan da europar mahai-inguruan.

I. TERRADILLOS

azaldu direlakoan dago ilustratzaile amezketarra: «Askotan, komikiak egiten hasi eta kaxoian geratzen dira, oso luzeak direlako edo finantzaziorik eduki gabe, jarraipenik gabe geratzen direlako; autore lanak izaten dira asko. Diru laguntzen bitartez lan horietako batzuk ezagutzeko aukera zabaldu da».

Egoerara moldatu beharra

Hitzaldietan zein mahai-inguruetan lehenago parte hartutakoa da Gurrutxaga, baina azken hau Internet bidez egiten duen lehena izan da. Esperientziari buruz galdetuta, «gogor samarra» izan dela aitortu du.

Hainbat proba egin behar izan dituztela kontatu

du: estekak modu egokian funtzionatzen zutela, guztiek elkar ondo entzuten zutela eta abar. Bide bere-tik, mahai-ingurua egin aurreko egunetan egunero eduki dituzte hitzorduak proba horiek burutzeko. Prozesua berarentzat «nekagarria» izan omen da, baina testuingurua kontuan hartuta, neurri guztiak beharrezkotzat jotzen dituela ere nabarmendu du. Izatez, ingelesez izan da mahai-ingurua, Gurrutxagak ordea, Idoia Noble itzultzailearekin egin du lan, erantzunak euskaraz eman behar zituela eta. Hasierako planteamendua bakoitza etxetik aritzea zen, baina, azkenean, itzultzaileak eta ilustratzaileak elkartzea erabaki zuten; Gurrutxaga horrela «segurua-



go» sentituko zela eta. Etxepare Euskal Institutuaren Donostiako egoitzan elkartu ziren biak, eta artista amezketarrak «azkenean, oso gustura» aritu zela esan du.

Txikiak batzearen indarra

Herrialde bakoitzak bere ezaugarriak dituen arren, guztietan emakume komikigileen egoera antzekoa dela ondorioztatu dutela ere aipatu du Gurrutxagak: «Orokorrean, komikiak argitaratzea zaila da herrialde guztietan; guztiok eduki ditugu zailtasunak publikatzerakoan».

Etxeko errealtateari begira, berriz, euskara bezalako hizkuntza gutxitu batean lan egiteak egoera «are zailagoa» bihurtzen omen du. Azaldu duenez, frantsesez, kasurako, komiki asko argitaratzen omen dira eta, horrek, sektoreak indar handiagoa edukitzea eta merkatua zabalagoa izatea dakar.

«Orokorrean, komikiak argitaratzea zaila da herrialde guztietan; guztiok eduki ditugu zailtasunak publikatzerakoan»

Mahai-inguruan, ordea, egoera aztertzeaz eta trabak identifikatzeaz gain, konponbideak identifikatzen ere aritu dira. Jislovak proposatutako ekimena ekarri du gogora Gurrutxagak. Artista txekiarraren ustetan, ilustratzaile zein komikigile txikien arteko saretze prozesu bat antolatu behar da; horrela, batzuek besteen lanaren berri izango lukete eta publiko zabalago batera iritsiko lirateke.

Amezketako ilustratzaileari ideia «oso interesgarria» iruditu zaio, eta sareak abantaila gehiago izango lituzkela ere azaldu du: «Istorio propioak sortzen eta proiektuak burutzen egiten dugun ahalegina oso handia da. Pena da edizio txikiak egin eta jende kopuru urri batengana bakarrik iristea. Sarearen bitartez obrak beste hizkuntza batzuetara itzultzeko aukera ere edukiko genuke».

Ibai Gain Parkinga



Parking


KARABANAK ETA
AUTOKARABANAK

Ibai-Gain

688 778 660

Parking Berrobi: Karabanak eta autokarabanak
Parkingibaigain@gmail.com
Karabana edo autokarabanentzat zerbitzu merkea





JOSU LOPEZ-GAZPIO
KIMIKAN DOKTOREA
ETA ZIENTZIA
DIBULGATZAILEA

Zientziaren garaia eta zientziaren denbora

udako tenperatura altuek ez zutela eragin handiegirik izango koronabirusak eragindako gaitza arintzeko. Orain badakigu SARS-CoV-2a ez dela berez desagertuko eta zientziaren ezagutza beharko dugula hari aurre egiteko. Zientziak, ordea, denbora behar du eta gehienetan azkarregi joatea ez da ona.

Martxo amaieran *Zientziaren Talaian* bertan *COVID-19: Benetako datuen beharra* artikuluan azaldu nuen bezala, errealitatearen analisisa egiteko ikuspegi osoa izan behar dugu. Orduan esandakoak, orain ere zentzua dauka funtsean, baina, gauzak asko aldatu dira martxotik. Oraingo datuen arabera, martxoaren 24 hartan 8.500 positibo berri zenbatu ziren Espainian. Irailaren 11n, aldiz, 12.200 positibo berri zenbatu ziren, baina, egoera askoz larriagoa zen martxoan orain baino. Aldatu diren elementuen artean, azpimarratu behar da orain SARS-CoV-2a hobeto ezagutzen dugula. Medikuntzan eta ikerketan aurrerapauso itzelak eman dira eta oraindik egiteko asko dagoen arren, modu eraginkorragoan egiten zaio aurre COVID-19ari.

A buztuaren amaierarekin batera geroz eta argiago ikusi genuen

Garai zail hauek erakutsi digute zientzian aurkituko dugula irtenbidea eta gure galderen erantzuna -edo erantzun batzuk behintzat-. Geroz eta gehiago dakigu COVID-19ari buruz, baina, zientziak bere denbora behar du. Duela gutxi entzun genuen AstraZeneca konpainiak koronabirusaren txertoa garatzeko ikerketa bertan behera utzi zuela eta horrek bazter gutxiak nahastu zituen. Egun gutxi batzuk beranduago berriro abian jarri zen ikerketa. Horrelako gauzak ohikoak dira ikerketaren munduan, are gehiago giza-kiongan erabiliko diren txertoak garatzeko ikerketetan. Normala da txerto baten esperimendazio-fasean arazoak egotea eta horren ondoren txerto batzuk aurrera jarraituko dute eta beste batzuk betiko baztertuko dira. AstraZenecaren kasuan gertatutakoak

ez gaitu kezkatu behar, kontra-koa, ikerketaren faseak modu egokian egiten ari direla esan nahi du eta noizbait txertoa lortzen bada berme osoa izango duela ere bai.

Une honetan oso arriskutsua litzateke azkarregi korri egin nahi izateagatik akatsak egitea. Zientziaren garaia da, baina, zientziak bere denbora eta lasaitasuna behar du. Zientzia ez da prentsako lerroburu politak uzteko zalea. Ir-

Medikuntzan eta ikerketan aurrerapauso itzelak eman dira eta oraindik egiteko asko dagoen arren, modu eraginkorragoan egiten zaio aurre COVID-19ari



tenbide miragarriak emateko zalea ere ez. Eman die-
zaiogun zientziari behar duen denbora eta egon gai-
tezen lasai bitarte horretan. Bizi dugun egoera zail
honek uzten digun lasaitasunean behintzat. Une ho-
netan gure itxaropena ez dago txer-
to miragarrietan: txertoak lortzea ez
da erraza izango, ez da azkarra izan-
go. Horrexegatik, momentuz beste
segurtasun eta higiene neurriak
mantentzea da garrantzitsuena.
Maskara, segurtasun distantzia, es-
kuak garbitzea, kasu positiboen ja-
rraipena, berrogeialdia... Horiexek
izango dira, momentuz, gure txerto-
ak.

Momentu askotan zalantzak sortu-

Une honetan gure
itxaropena
ez dago txerto
miragarrietan:
txertoak lortzea
ez da erraza
izango, ez da
azkarra izango

ko dira aipatutako neurri guztiei buruz: Nahikoa al da
1,5 metroko distantzia? Zein da maskararik eraginko-
rrena? Zenbat eguneko berrogeialdia egin behar da?
Guzti horretarako zientziak erantzunak izango ditu,

baina, une honetan normala da
ikerketa-iturri desberdinek infor-
mazio desberdina ematea. Kasu
gehienetan faktore askoren ara-
berako erantzunak behar dira
eta, bestetik, ikerketa askoren
emaitzak osotasunean aztertu
arte ez dugu jakingo zehazki zer
den orain gertatzen ari dena. Go-
gorra egingo zaigun arren, une
honetan zientziak pazientzia be-
har du.

Benetako pribilegioa



KOLDO ALDABE
KAZETARIA

Telebistan Frantziako Tourra ematen ari dira, eta, telebistak ematen ez duen arren, Italiako Giro Rosa ere korritzen ari dira ziklista zailduak. Eguraldia ere giroaz gozatzeko gonbita luzatzen ari zaigu. Baina, goizero, iratzargailuak ohartarazten dit badirela aste batzuk amaitu ziztzaizkidala oporrak, eta lanera joan behar dudala.

Lagun batzuek esaten didate neureak ez duela meriturik, pribilegiatu hutsa naizela, lanera joan egin behar badut ere, joatearekin nahikoa dudala; beraiek, aldiz, lana egin ere egin beharra daukatela, ez joan soilik. Eta ez didate *Betioporretan jauna* deitzen, kuadrillan ez naizelako, haien esanen arabera, pribilegio hori duen bakarra.

Badut beste lagun bat, irakaslea da bera, bakoitzak merezi dituen oporren erdiak jasotzen dituela dioena. Beste lagun batek zintzoki aitortu izan digu bera alferra dela, baina lana egitera kondenatuta dagoela. Harentzat ez dago lanerako egun onik; txarrak eta okerragoak dira lan egun guztiak.

Bere bokazioa lana egin duena eta bere lana bokazio bihurtu duen lagunik ere ez zaizkit falta. COVID-19aren ondorioz lanik egin ezinik egon dena, normaltasun berri honetan lana galtzeko arriskuan dena ere lagunak ditut.

Gustuko lana izan edo ez, gustura lan egin edo ez, soldatarekin, oporrekin, lan egutegiarekin ados egon edo ez, lana dugunok pribilegiatuak garela saldu nahi izan digute, sinetsi ere egin dute askok. Kuadrillan, dena den, ez dugu halako usterik.

Asteak dira, beraz, goizero iratzargailuak jo, eta gosalduta, prestatu eta lanera (gutxienez) joaten naizela. Baina lagun horiek hori ditut, ilunabar batean, asteburu batean, elkarrekin egon, ibili, solas egin eta barreak eta negarrak partekatzeko, baita normaltasun berri honetan ere.

Eta, aizue, hori da benetako pribilegioa.

**Eta ez didate
'Betioporretan
jauna' deitzen,
kuadrillan ez
naizelako,
haien esanen
arabera,
pribilegio hori
duen bakarra**



**ROCIO FRAGA
VAZQUEZ**
GIZARTE
HEZITZAILEA

Gehiegizko ordena eta desordena

Boligrafoa hartu eta zerbait idaztekotan eseri naiz. Bai, oraindik arkatza eta papera alde batera utzi nahi ez dituen erresistentziaren parte naiz. Fundamentuzko lerro batzuk idazteko desioarekin jarri naiz mahaian, hemendik aurrera beste lan batzuetan arituko bainaiz, eta gero arte polit bat esateko hitzen bila nabil. Baina ez diot denon ahotan dabilen gaiari heldu nahi, zer esan egon badago, eta asko gainera, baina merezi duen garrantzia kentzeko intentziorik gabe diot, bizitza badagoela Koronabirusaz gain.

Garai hauetan, arau zorrotz eta funtzionamendu sistematikoei jarraituz bizitzen ikasi behar izan dugu, pandemiari aurre egiteko edota itxurazko segurtasun bat bilatzeko. Besarkadak, gertutasuna, irribarreak... bukatu dira dagoeneko, eta faltan botatzen ditut, baina egoerari aurre egiteko dela pentsatuz, egunkariei eta sare sozialei begirada bat bota diet, neurri hauen eraginkortasuna baieztatzen duten tituluen bila. Eta buru-nahastea handitzea besterik ez dut lortu, etengabe iritzi, teoria, argudio... desberdinak argitaratzen baitira, eta nik behintzat ez dakit zeri jaramon egin eta zeri ez. Zentzuzko irtenbide bakarra gobernuen komunikazio ofizialei kasu egitea dela dirudi, baina batzuek daukaten curriculumak ikusita, egia esan ez

Fundamentuzko lerro batzuk idazteko desioarekin jarri naiz mahaian, hemendik aurrera beste lan batzuetan arituko bainaiz, eta gero arte polit bat esateko hitzen bila nabil

Beraz, idazteak daukan gaitasun terapeutikoari heldu eta nire barrenean bueltaka dabiltzan sentipenei aske ateratzeko aukera eman diet. Eta zein izan da azaleratu zaidan lehen sentsazioa? Ezegonkortasuna. Gizartean bizi dugun egoera berri honek zenbat kalte egin didan hausnartzen hasi naiz, momenturo zer gertatuko den jakin gabe bizitzeak goitik behera astindu nau, eta ez dut uste bakarra naizenik. Gizakiok segurtasuna eta aurreikuspena oinarritzeko behar bezala dauzkagu, eta behar horiek asetzeko, edozeri heldu diezaiokegu.

didate konfiantza handirik merezi.

Azken lerro hauek idazten nagoela, oraingoan ere birus madarikatu honek tranpan harrapatu nauela ohartu naiz, behin eta berriz eguneroko solasaldietan azaltzen den mintzagaia errepikatuz. Hankaz gora jarri dizkigu bizitzak pandemia honek, baina aldi baterako soilik, edo bizimodua aldatuko digun aro berri baten ateetan al gaude? Maskararik gabeko irribarreak aurki ikusteko itxaropenarekin, amaierako puntua ipini dut; esperantzari esker irriño ttiki bat marraztu dute nire ezpainen ere.





UNAI MENDIZABAL
'MENDI'
 HARITUZEKO KIDEA

Informazio gerratea

Doinua Nehoiz ez da sentitzen

Inbututik pentsua
 ahateen mokora
 nork gehio, nork lehenago
 sartu gure ahora
 informazio gerra hontan
 datua da polbora
 baina aldea badago
 garitikan lastora.
 Gibela ez dadin leher
 eta irten kanpora
 jan aurretik galbahea
 pasatu beharko da.





beinoski pitxarra

Beñat Iraola

BAINOSKI PITXARRA

Noizbehinka pitxarraren emaria ez da gustukoena izaten,
baina, emariak onak eta txarrak dakartza.

AGENDA

ERAKUSKETAK

ZUMETA BIHOTZEAN

Azken Mugako ekitaldien barruan, Zumetari eskainitako omenaldia erakusketa gisara, Zaratetxean ikusgai dago irailaren 26a bitarte. Ostirala (18:00-20:00), larunbata (11:00-13:00 eta 18:00-20:00) eta igandea (11:00-13:00).

Bedaio, Zarate.

ANA AMIGO

Ana Amigo margolari tolosarraren erakusketa iraila guztian zehar. 15 oleoek Tolosako begirada berezia eskainiko dute.

3 Taberna, Tolosa.

BELARDO

Iñaki Martiarena *Mattin* ilustratzailearen Belardo pertsonaia ezagunak 20 urte bete ditu, eta urtebetetzea ospatzeko, erakusketa antolatu dute. Irailaren 30era arte egongo da zabalik eta hitzordua aldeztu aurretik zehaztu behar da 688 604 466 zenbakian.

Fagus Alkiza Interpretazio Zentroa, Alkiza.

SEVE IGLESIAS

Pintura erakusketa. Astelehenetik ostiralera: 18:00-20:30. Larunbatetan: 11:30-14:00. Nagusiki lan figuratiboak dira, bertako paisaia ugarirekin, baina azken etapa honetan sortutako pintura abstrakto batzuek ere gozatu ahal izango da.

Gurea erakusketa gela, Amasa-Villabona.

OSTIRALA IRAILAK 18

ALTZO

UDA GIRO

20:00. AMAK taldearen kontzertua. Alaitz Telletxea, Maixa Lizarribar, Amaia Oreja eta Kris Solano, Altzoko eskolan izango da kontzertua. Sarrerak doan eskuratu daitezke herriko ostatuan.

AMASA-VILLABONA

INAUGURAZIOA

19:00. Seve Iglesiasen pintura erakusketaren inaugurazioa. Gurea antzokian.

BEDAIO. ZARATE

AZKEN MUGA

18:00. Rap emanaldia. Jon Tolosa *Nikotina* rapero gaztea eta Martintxo Arakama *Little Martinen* emanaldia.

ZIZURKIL

BERTSO SAIOA

19:30. Gai-jartzailea: Igotz Alkorta. Bertsolariak: Amaia Agirre, Oihana Iguaran, Unai Mendizabal eta Haritz Mujika. Joxe Arregi plazan.

TOLOSA

ANTZERKIA

20:30. *Fadoak entzuten zituen gizona* antzezlan. Iñigo Aranbarri, Ane Gabarain eta Kepa Errasti. [Irakurri erreportajea 26-29 orrietan.](#)

LARUNBATA IRAILAK 19

ALKIZA

GASTRONOMIAREN JATORRIA

12:00. *Barnealdeko txakolinaren*

berezitasuna. Bisita eta bazkaria Inazio Urruzola txakolindegian: 55 euro. Izena emateko: tour@tolosaldea.eus edo 943 69 74 13.

HITZALDIA ETA ARTE EKINTZA

18:00. *Las cinco estaciones de Walden* hitzaldia, Antonio Casado de Rocharen eskutik.

Jarraian. *Site specific* arte ekintza, *Zazpi zango*. Sk Efimeroak: Susana Cencillo, Koldobika Jaurregi eta Imanol Iribarren. Sarrera dohainik da baina aforoa mugatuta izango da. Bertaratu nahi izanez gero urmara.alkiza@gmail.com helbidera idatzi daiteke.

AMEZKETA

AZKEN MUGA

16:30. Zarateko bosgarren bertso saioa. Berez Zaraten, baina azkenean Amezketa Altuna anaiak frontoian egingo dute. Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Xabat Iralegi, Haritz Mujika eta Jone Uria. Izena emateko, 'Bertsoak' izenburuarekin e-maila bidali behar da honako helbidera: azkenmugaproiektua@gmail.com.

IRURA

GINKANA

11:00. Irura Bizi elkarteak antolatuta, ginaka eta jokoak bizikleta-rekin haurrentzat, frontoian.

LIZARTZA

BIKE SHOW-A

Bike Show trial bizikletan, plazan. **17:00.** Haurrekin trial saioa. **19:00.** Erakustaldia. Irene Caminos eta Jabi Alonso.

ZIZURKIL

TXAPELKETA

Halterofilia txapelketa, sailkapen fase ofiziala. Egun osokoa. Gonbidapenak udal bulegoetan. Intxaur pilotalekuan.

19:30. Bingo musikatua gazte eta helduentzat. Eserlekuak ardura-

dunek finkatuko dituzte izen ematearen arabera. Kuadrilla bakoitzeko, gehienez 10 lagunek izen eman ahal izango dute.

IGANDEA IRAILAK 20

AMASA-VILLABONA DANTZA IKUSKIZUNA

13:00. Dantzas konpainiaren *Basoa* ikuskizuna. Koreografia: Josu Mujika. Musika: Iñaki Salvador. Testua: Xabier Sukia. Ikuskizunerako ez da sarrerarik behar, Errebote plazan. *Basoa. Estalkia. Gordelekua.* Magiaz betetako lekua edota beldurgarria. Gurs, iraganaren eta orainaldiaren zubia. Historiako momentu tragiko jakin bat ezkutatu eta ahaztu nahi zuen basoa. Errefuxiatuen kanpalekua, kontzentrazio esparrua... Guden eta pobreziaren ondorioz beren lurraldea uztera behartuta dauden milaka pertsona errefuxiaturen erakusleho.

19:30. *La Mudanza* ikuskizuna, Perigallo Teatrok eskainita. Helduen antzerkia, gaztelaniaz. Aktoreak: Celia Nadal eta Javier Manzanera. Zuzendaritza: João Mota. Sarrerak 8 euro (aldeztatik Amasa edo Basajaunen) eta 10 euro lehiatilan. Gurea antzokian.

IRURA ZIRKUA



17:00. *Bizi biziki zirkua.* Kiki, Koko eta Moko pailazoen ikuskizuna, plazan edo frontoian (eguraldiaren arabera).

ZIZURKIL EMANALDIA

20:15. *Ikusi arte*, herriko artisten emanaldia. Gonbidapenak udal bulegoetan. Herriko zenbait artista elkartu dira herrirako emanaldi hau prestatzeko. Hodei Arrastoaren zuzendaritzapean arituko dira Maria Altuna, Zigor Lampre-DZ, Unai Mendizabal eta Janire San Sebastian. Elbarrenako elizan.

ASTELEHENA IRAILAK 21

TOLOSA ODOL ATERATZEA

18:00. Gipuzkoako odol emaileak elkarteak antolatuta, kultur etxeko Topagunean.

ZIZURKIL IKASTAROA

15:30-19:30. *Eritasunak saihesteko eta baratzean eta lorategian landareak sendatzeko erremedio naturalak.* Egunak: irailak 21, 22, 23 eta 24. Irakaslea: Clara Gutierrez. Gaztelaniaz. 40 euro. Informazioa eta izen-ematea: fraisoro@fraisoroeskola.eus edo 943 69 21 66.

ZINEMA



QUE SUENE LA MUSICA

Larunbata (19:30 eta 22:15),
igandea (17:00) eta
astelehena (21:00).

Gurea aretoa, Amasa-Villabona.



UN AMIGO EXTRAORDINARIO

Larunbata (19:30), igandea
(19:30) eta astelehena (20:00).

Leidor antzokia, Tolosa.



SCOOPY

Igandea (16:00).
Leidor antzokia, Tolosa.



Fadoak entzuten zituen gizona obrako aktoreak, Topic zentroan. J. J. A.

DESIRA PUZTU DEZAKEEN BIDAIA

Xake Produksioak konpainiak gaur aurkeztuko du Leidor antzokian bere azken obra: 'Fadoak entzuten zituen gizona', maskulinitateari buruzko usteak eta dudak jorratzen dituen antzezlan. Topic-en egin dute azken egonaldia, eszenografiarekin entsegu orokorrak burutzeko.

Josu Artutxa Dorronsoro

Luzaroan itxaroten egon ondoren, hemen da Xake Produksioak antzerki-konpainiaren azken obra: *Fadoak entzuten zituen gizona*. Gaur iluntzean izango da antzezlanaz gozatzeko aukera, Tolosako Leidor antzokian, 20:30etik aurrera. Getari Etxegaraik zuzentzen du obra, eta Iñigo Aranbarri, Ane Gabarain eta Kepa Errasti aktoreek hartzen dute parte.

Kamioi gidaria da Mario. Bakarrik bizi eta beti dabil errepidean aurrera eta atzera. Hala ere, albiste lazgarria ezagutu berri du, eta Portugalgo sorterrira itzuli nahi du gurasoei jakinarazteko. Ander, berriz, neska lagunarengandik banandu berria da. Haur bat dute elkarrekin, eta bere ardura zen asteburuan haurra zaintzea, baina fado abeslaria denez, Huelvako Ayamonte herrian ospatzekoa den lehiaketara doa. Behatza luzatu, eta Mario gelditu zaio kamioiarekin. Bat-batean, lehendik elkar ezagutzen dutela ohartzen dira.

Lotura emozional txiki bat duten bi pertsonaiek pare bat egun iraungo duen bidaia bat hasiko dute. Gaztelako lurretan elurte handi bat egongo da, eta errepidean harrapatuta geratuko dira. Zirkunstantzia horrek sortzen duen intimitateari eta elkarrekin pasatzen duten denborari esker, harreman oso berezia sortuko da bi mutil hauen artean eta kontu askoren inguruan gogoeta egiteko bidea emango die.

Konpainiako kideek bidaia berezi bat bezala deskribatzen dute obra. «Obra guztiak bidaia bat izaten dira, baina hemen bereziki, mota askotako bidaiak daude», aipatzen du Etxegaraik. «Obra guztietan dago zerbaiten edo norbaiten transformazio bat, baita hemen ere», gehitzen du Errastik.

Feminizatutako kantu mota bat

Maskulinitatea jorratu nahi du obrak. Gizarteak maskulinitateari jartzen dizkion ezaugarriak buruz galdetu, eta kontraesanak sortu. «Ez da asko jorratuta ikusten den gai bat; hasieratik, gainera, umore askorekin lantzeko helburua genuen. Kosta zaigu estiloa erabakitzea eta fintzea, baina uste dut emaitza txukun bat lortu dugula».

Heziketatik eta gizarteak behartutako arauen eraginez, mutil edo gizonezko askoren baitan errotutako maskulinitatearen ezaugarriak ez-baian jarri nahi dituzte, ustekabeko gertakarien bitartez. Izan ere, gertakari pare batek egoera aldatuko die Anderri eta Mariori. «Obran zehar norabide aldaketa politikak daude, baita sorpresa ugari ere, ikuslea deskolokatzen dutenak», nabarmentzen du Errastik. Gainera, eskemak apurtze hori «oso ondo» landu dutela dio Etxegaraik.

Hala ere, historia idazten hasteko lehen helduleku nagusia fadoa izan zen. Honela azaltzen du Errastik: «Honako hau irakurri nuen behin artikulua batean: maskulinitate berriak fadoaren munduan. Portugaldik kanpo, mundu mailan, fadorik ezagunenak emakumezkoak zirela esaten zen bertan. Eta hori zerga-

«Mutilei, oro har, gehiago kostatzen zaie sexualitateaz hitz egitea, askotan, batzuen maskulinitatea zalantzan jartzearaino»

GETARI ETXEGARAI

ratuta ditugula dio Etxegaraik, batez ere, mutilen artean. «Gehiago kostatzen zaie, adibidez, sexualitateaz hitz egitea, askotan, batzuen maskulinitatea zalantzan jartzearaino». Errastik, berriz, harreman horiek beste modu batekoak izaten direla dio. «Oso gertu daude maskulinitatea eta orientazio sexuala, baina ez dira gauza bera. Kasu askotan, homosexuala dena gertuago egon daiteke emakumeari lotzen zaizkion izateko moduekin, baina ez du zertan horrela izan behar».

Baina, eta zein da gizarteak berak maskulinitateari buruz duen ikuspegia? Aurreiritziz beteta bizi al gara? «Zoritxarrez, gizartea bera, oro har, oso klasikoa da, pentsamolde klasikoa dugu denok», dio Etxegaraik. Hori dela eta, obraren bitartez, «publikoak horretan pentsa dezala, hausnartu dezala» nahi dute. «Deskolokatu dadila aurkezten dugun egoera apurtzaile honekin. Inkontzienteki, uste duguna baino patroiz zorrotzagoak ditugu, modu finko batean pentsatzera eramaten gaituztenak. Bada, horrekin apurtu nahi dugu», gaineratzen du Errastik.

Elkar talka egiteko sortuak

Hori lortzeko, pertsonaien diseinuak eta aktore bilaketak «sekulako lana» eskatu diela aitortzen dute biek. «Hori izan da zailena», aitortzen du Errastik. «Gure artean ere sortu dira eztabaida batzuk, adosterako orduan batez ere, eta beraz, prozesua interesgarria izan da» dio Etxegaraik. «Gauzak asko aldatu dira, guztion artean joan gara aldatzen. Izan ere, gar-

tik izan zitekeen galdetuta, bada, fadoetan abesten ziren kantuek maitasunaren ingurukoak zirela eta oso melankoliatsuak zirela zioen. Hori dela eta, aukera polita iruditu zitzaidan maskulinitatea fadoen munduan txertatzeko».

Betiko eskemak apurtu nahian

Mutilen arteko harreman batean oinarritzen da antzezlanak. Egoera horri buruz galdetuta, dagoeneko izateko modu batzuk oso barne-

biago genuen gertatuko zena, pertsonaiek egoeren aurrean izango zuten erreakzioa baino».

Izaerari erreparatuta, gizonezko bi pertsonaiak guztiz ezberdinak dira. Txarli Andrade idazleak berak buruan zuen talka egingo zuten bi pertsona izatea. Emozioak erakusten ez dituen gizon hotz eta azkarra da Mario, eta gordetzen badu ere, homosexuala da. Ander, berriz, heterosexuala da, oso emozionala, sentimenduek gaina aise hartzen diotena eta fado kantari fina. «Justu sentsiblea dena ez da homosexuala, eta homosexuala dena da gizonezko ohiko itxura duena», nabarmentzen du Etxegaraik.

Hirugarren pertsonaia bat ere bada antzezlanean: Masku. Beste bi pertsonaien artean eragin handia izango du, gorabeherak sortuz eta egoerak guztiz aldatuz. «Pisu izugarria du obran», dio Errastik. Etxegaraik, berriz, aitortzen du «benetan bera dela protagonista handiena». Pertsonaia horrek, gainera, absurdorako eta surrealismorako bidea emango du. «Berez ez da existitzen, nahiz eta bakoitzaren buruetan badagoen», dio Etxegaraik. «Eskemak apurtzen dituen pertsonaia da, hortaz, gogo handia dut publikoarengan nolako eragina duen ikusteko». Txarli Andrade idazlea bera litzateke laugarren pertsonaia, baina sekula ez da ikusten. Hain justu, idazlearen txotxongiloa da Masku, baina txotxongilo bihurria, harriarik libratzen saiatzen dena.

Publiko aurrean, bigarren aldiz

Arestian aipatu moduan, gaurkoa izango da obraren estreinako emanaldia, udazkeneko birari ekin aurretik. Hala ere, ez da Tolosan eszenaratuko duten lehen aldia izango, izan ere, ekainean hiru astez izan ziren Topic zentroan, testuaren zirriborro txiki bat egiten. Uztailean, berriz, Miarritzen izan ziren, Théâtre des Chimères konpainiaren espazioan, eta bertan jendaurrean entsegu ireki bat egiteko aukera izan zuten. Asko lagundu zietela aitortzen du Etxegaraik. «Esze-

«Publikoak pentsa dezala, hausnartu dezala gaiari buruz, deskolokatu dadila aurkeztan dugun egoera apurtzailearekin»
KEPA ERRASTI

nografia amaitu gabe ere, obra osorik erakutsi ahal izatea eta *feedback* hori jasotzea oso aberasgarria izan zen. Une egokienean egin genuen».

Azken asteetan Topic-en izan dira berriro, hirugarren eta azken sor-kuntza-egoitzan, entsegu orokorrak egiteko. Egonaldi honetan, batez ere eszenografiarekin aritu dira lanean; hori izan da azken ukitua. Gainera, Etxegarairen eta Errastiren ustez, garrantzi berezia izango dute erabiliko dituzten elementuek. «Obrak behar duen magia ematen die», dio zuzendariak. Aktorearen ustez,





«bere berezitasuna du, identitate propio bat ematen diolako obrari eta estetikari, eta kontatu nahi dugun horren barruan, zentzua ematen dio». Musikak eta argiztapenak ere garrantzi handia izango dute, besteak beste, kamioiko bidaia irudikatzeko.

Gaurko emanaldiaren inguruan, urduritasuna nabari duten galdetuta, bietako inork ez du ezeztatzen. «Batez ere gogotsu gaude, publikoa behar dugu, jendea. Urduritasun puntu bat ere beti da beharrezkoa, bestela gure lanbide honek ez du zentzurik», aitortzen du Etxegaraik. Leidorreko saioaren atzetik, emanaldi gehiago etorriko dira. «Udazkeneko bira ere etor dadila, ezer aldrebesten ez bada behintzat, emanaldi ugari ditugu eskaintzeko, eta beraz gogotsu gaude», gehitzen du Errastik.

FITXA TEKNIKOA

Egileak: Kepa Errasti eta Txarli Andrade.

Zuzendaria: Getari Etxegaraik.

Antzezleak: Iñigo Aranbarri, Ane Gabarin eta Kepa Errasti.

Argi diseinua: David Alkorta.

Eszenografia diseinua: Eider Ibarrondo.

Musika: Pascal Gaigne.

Ekoizpena: Xabier Ormazabal.

Eszenografia errealizazioa: Eskenitek.



EGURALDIA

IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

OSTIRALA

Ezegonkortasuna areagotuko zaigu. Goizean hodeitza handia izan arren, giro lasaia eta nahiko argia izango dugu. Arratsaldean bero-hodeiak ugaritu eta zaparradaren bat edo beste izango dugu, ekaitz kutsukoak izatea baztertu gabe. Hala ere, euri gutxi egingo du. Haizeak hegotik joko du, bizi, eta termometroek zertxobait behera egingo dute, balio altuenak 30-31 gradutan errendituz.

LARUNBATA

Giro nahasiarekin jarraituko dugu. Goizean hodeiak nagusitu arren, ostarte batzuk ere ikusiko dira eta orokorrean giro lasaia izango dugu. Eguerditik aurrera hodeitza trinkotu egingo da eta barnealdek zaparrada batzuk sartuko dira. Zaparrada tarteka mardulak izango dira eta ez da baztertzen ekaitzak jotzea. Haizeak hegotik joko du eta temperatura zertxobait jaitsiko da, balio altuenak 27-28 gradutan errendituz.

IGANDEA

Antzeko giroa berriz ere. Goiza lasaia izango da, hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira eta ateri mantenduko da. Eguerditik aurrera berriz ere hodeitza trinkotu egingo da eta euri pixka bat bueltan izango da, gehienbat ilunabar alderako. Hala ere, oso gutxi botako du. Haizeak ipar-mendebaldeko norabidea hartuko du eta temperatura jaitsi egingo da, balio altuenak 24-25 gradutan geratuz.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

15,50€
45€
51€

Atarikideek

12€
33€
38€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

IRAILAK 18, OSTIRALA
AMASA-VILLABONA

Egunekoa. Jesus Mari Etxebeste.
Gernikako Arbolaren lorategiak, 3.
943 651040.

IRAILAK 19, LARUNBATA
AMASA-VILLABONA

Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias.
Kale Berria, 34. 943 69 11 30.

IRAILAK 20, IGANDEA
TOLOSA

Egunekoa. Edurne Bengoetxea.
Kale Nagusia, 7.
943 67 06 48.

IRAILAK 21, ASTELEHENA
IBARRA

Egunekoa. Edurne Mujika Martinez.
Euskal Herria kalea, 3.
943 67 09 15.


**EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO
FARMAZIA: TOLOSA.**
LURDES AZPIROZ GALARZA.
LARRAMENDI, 6. 943 67 51 18.

HEMEN ZURE IRAGARKIA JOAN DAITEKE

publi@ataria.eus
661 678 818

 **gorriti | martínez**

San Frantzisko pasealekua 14, Tolosa
Tel: 943 650 192
www.gorritimartinez.com



2^{mó} graduatu

BLUESTOP
FILTROA
BARNE

99€

2020/9/30era arte baliagarria. Ezin da beste promozio batzuekin metatu.



BABESTU ZURE BEGIAK
PANTAILETARAKO
GURE BETAURREKOEKIN

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

MULTIÓPTICAS



www.multipopticas.com

Audi Enpresari

ZERO ISURI IZANGO DUEN
ETORKIZUN BATEN ALDE
EGITEN DUGU LAN

ARRASTORIK
EZ UZTEKO
BERRITZEN DUGU

Gaztelugatxe, Bizkaia



Audi A3 Sportback 40 e-tron

Gure esfortzu guztia jartzen dugu zero isuri izango duen etorkizuna eraikitzeko. Entxufatu daitekeen Audi teknologia hibridoa bezalako teknologiek berritzen dugu; motor elektrikoa eta gasolinakoa bateratzen ditu. 40 kilometro arteko %100eko autonomia elektrikoa du, gidatze eraginkor eta arduratsua eskainiz.

Entxufatu daitekeen Audi TFSI teknologia hibridoa honako modeloetan dago:

Audi Q5 TFSIe, Audi Q7 TFSIe, Audi A3 Sportback 40 e-tron, Audi A6 TFSIe, Audi A7 Sportback TFSIe eta Audi A8 TFSIe.
audi.es/a3etron



Autowag Tolosa

Usabal industrialdea, z/g
20400 Tolosa
Tel. 943 67 35 81

150 kWko (204 CV) Audi A3 Sportback 40 e-tron. CO2 isuri konbinatuak: 43tik 46 g/km-ra. (NEDC: 43tik 46 g/km-ra). Kontsumo konbinatua (erregaia): 1,9-2 l / 100 km.